SAN MARKO MANKOMUNITATEAREN EREMUAN HIRIGUNEKO MINIGARBIGUNEEN BIDEZKO GAIKAKO BILKETA ZERBITZUA	SERVICIO DE RECOGIDA SELECTIVA DE MINIGARBIGUNES URBANOS EN EL ÁMBITO DE LA MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS.
BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA (BTA)	**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS. (PPT)**

Espediente zk.: 09/2025

I. TITULUA. ALDERDI OROKORRAK

1.- XEDEA

Baldintza agiri honen xedea hau da: San Marko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako hiri eremuan etxeko hondakin arriskutsuak eta bestelako hondakin bereziak biltzeko laster ezarriko diren minigarbiguneen bidez gaikako bilketa zerbitzua emateko baldintza tekniko batzuk zerrendatzea.
Baldintza Teknikoen Agiri honetan eta lehiaketaren xede den zerbitzuaren adjudikazio kontratuaren bidez xedatutakoari zorrozki jarraikiz emango da zerbitzua.

2.- HASIERAKO LURRALDE EREMUA

Baldintza agiri honetan zehaztutako zerbitzuak San Marko Mankomunitatearen lurralde eremuko udalerri hauetan emango dira, hasiera batez:

- Donostia
- Astigarraga
- Errenteria
- Lasarte-Oria
- Lezo
- Oiartzun
- Urnieta

Etorkizunean, beharbada, Mankomunitatea osatzen duten udalerri guztietara hedatuko da zerbitzua.

TITULO I. ASPECTOS GENERALES

1.- OBJETO

Es objeto del presente Pliego el enumerar una serie de condiciones técnicas que sirvan de base para el servicio de recogida selectiva de los minigarbigunes destinados a la recogida de Residuos Peligrosos del Hogar y otros Residuos Especiales, que próximamente se van a implantar en el área urbana de los municipios integrantes de la Mancomunidad de San Marcos.
La explotación se efectuará con sujeción estricta a lo especificado en el presente Pliego de Prescripciones Técnicas y a lo que se determine a través del contrato de adjudicación del servicio objeto del concurso.

2.- ÁMBITO TERRITORIAL INICIAL

Los trabajos definidos en el presente Pliego se extenderán inicialmente a los siguientes municipios del ámbito territorial de la Mancomunidad de San Marcos:

- Donostia
- Astigarraga
- Errenteria.
- Lasarte-Oria.
- Lezo.
- Oiartzun.
- Urnieta.

En un futuro no se descarta la ampliación del servicio a la totalidad de los municipios que componen la Mancomunidad.

ESKU8ed070d6-f563-417c-8758-5170b1934f57

II. TITULUA. LEHIAKETAREN XEDE DIREN LANEN DESKRIBAPENA ETA BALDINTZA TEKNIKOAK

3.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Gaikako bilketa zerbitzuak egin beharreko lan guztiak hartuko ditu barnean: herritarrek minigarbiguneetan uzten dituzten materialak biltzetik hasi, Mankomunitateko garbiguneetan dauden eremuetara eraman eta edukiontzietan utzi arte.

Zerbitzu horrekin batera, adjudikaziodunak bilketarekin zerikusia duten beste lan batzuk egin beharko ditu, hala nola minigarbiguneak lehen aldiz jartzea, berriz jartzea, garbitzea eta mantentzea, eta baldintza agiri honetan zehazten diren beste batzuk.

4.- JARDUERA IRIZPIDEAK ETA ZERBITZUA EMATEKO MODUA

Enpresa lizitatzaileei dagokie planteatzen den zerbitzua egiteko sistema eraginkorrenak proposatzea. Zerbitzua antolatzeko proiektua xehetasun osoz definituko dute, ibilbideak, ibilgailuak eta langileak barne.

4.1.- Bilketa modalitatea.

Bilketa eskuz egingo da, zamalanetarako egokituta eta ekipatuta dauden ibilgailuekin, bildu behar diren hondakin eta edukiontzien beharrak eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Oro har, bilketa zerbitzuko langileek minigarbiguneen ondoan utziko dute ibilgailua, pertsonen eta autoen ohiko zirkulazioa oztopatu gabe, segurtasun

TITULO II. DESCRIPCIÓN Y CONDICIONES TÉCNICAS DE LA REALIZACIÓN DE LOS TRABAJOS OBJETOS DEL CONCURSO

3.- DESCRIPCIÓN DEL SERVICIO

Este servicio de recogida selectiva comprenderá todas las operaciones a desarrollar desde la recogida del material depositado por los ciudadanos en los minigarbigunes hasta su traslado y correcto depósito en las áreas y contenedores ubicados en los Garbigunes de la Mancomunidad.
Solidariamente a este servicio, el adjudicatario deberá desarrollar otros trabajos afines al de recogida, tales como la colocación inicial de los minigarbigunes, reposición, su limpieza y mantenimiento, y otras labores que se especificarán a lo largo del presente Pliego.

4.- CRITERIOS DE ACTUACIÓN Y FORMA DE EJECUCIÓN DEL SERVICIO

Corresponde a las empresas licitadoras proponer los sistemas más eficaces para la realización del servicio propuesto. Definirán con todo detalle el proyecto de organización del servicio, definiendo recorridos, vehículos y personal.

4.1.- Modalidad de recogida.

La recogida se efectuará de forma manual mediante vehículos debidamente acondicionados y equipados para las operaciones de carga y descarga, considerando las necesidades y características de los residuos y contenedores a recoger.

De forma general, los operarios de recogida estacionarán el vehículo en las inmediaciones de los minigarbigunes, no entorpeciendo el normal tránsito de

ESKU8ed070d6-f563-417c-8758-5170b1934f57

neurri egokiak hartuta eta behar-beharrezko geldialdiak eta maniobrak eginez.

personas y vehículos, adoptando las debidas medidas de seguridad realizando las paradas y maniobras estrictamente necesarias.

Minigarbiguneko barrualdean sartzeko atea irekiko dute eta hondakin mota bakoitza biltzeko jarritako elementuak aterako dituzte: gurpildun edukiontziak, kutxak edo poltsak.
Hondakinak bildu ondoren, hustutako elementuak minigarbigunearen barruan utziko dira.
Sarbideko ateek maniobra hori errazteko lagungarri bat izango dute, baita segurtasun sarrailak ere.

Abrirán la puerta de acceso al interior de los minigarbigunes y procederán a retirar los elementos dispuestos para la recogida de los distintos residuos, tales como contenedores con ruedas, cajas, o bolsas.
Una vez recogidos los residuos, depositarán los elementos vacíos dentro del minigarbigune.
Las puertas de acceso contarán con asistencia que facilite esta maniobra y contarán con cerraduras de seguridad.

4.2.- Zerbitzuko erabiltzaileen eta bildu beharreko unitateen kopurua
Zerbitzua emango den eremuko erabiltzaile taldea San Marko Mankomunitatea osatzen duten eta bilketa zerbitzuari atxikita dauden udalerrietako biztanle guztiak dira. Gutxi gorabehera, 275.000 biztanle dira.

4.2.- Número de usuarios atendidos y unidades a recoger.
El ámbito de usuarios al que se destina la prestación del servicio es el conjunto de la ciudadanía que habita en los municipios componentes de la Mancomunidad de San Marcos adheridos a esta recogida. Esta población se puede cifrar en aproximadamente 275.000 habitantes.

Minigarbiguneak pixkanaka jarriko dira, eta hauxe da aurreikuspena:

– 12-15 unitate zerbitzua hasterakoan, hau da, 2026ko lehen hiruhilekoan;

– 12-15 unitate gehiago, 2026. urtean zehar.
– gainerako 5 unitateak, 2027. urtean.

La implantación de los minigarbigunes será gradual, siendo la previsión la siguiente:

.- Entre 12 y 15 unidades al comienzo del servicio, previsto para el primer trimestre del 2026
.- Otras 12 - 15 unidades a lo largo del 2026.
.- 5 unidades restantes en el año 2027.

Horrez gain, kontratua indarrean dagoen bitartean, San Marko Mankomunitateak hasierako unitate kopurua, hots, adjudikaziodunak nahitaez bildu beharko dituen unitateen kopurua, handitu ahal izango du.

Adicionalmente, durante la vigencia del contrato, la Mancomunidad de San Marcos podrá aumentar la dotación inicial de unidades, que deberán ser obligatoriamente recogidas por el adjudicatario.

4.3.- Minigarbiguneen kokapena
Baldintza agiri hauek argitaratzen diren egunera arte ez da definitu, ez udalerrikako banaketa, ez kokapen zehatza.

4.3.- Ubicación de los Minigarbigunes
A fecha de publicación de estos pliegos no han sido definidos ni la distribución por municipio ni su ubicación exacta.

ESKU8ed070d6-f563-417c-8758-5170b1934f57

Banaketa hori behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko zaio adjudikaziodunari, zerbitzua ematen hasi aurretik.

4.4.- Dagozkion baimenak

Lizitatzaileek indarrean eduki beharko dituzte bilketaren xede diren hondakinak bildu eta garraiatzeko baimen egokiak, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen arabera.

4.5.- Biltzen diren hondakinak

Hasiera batez, hauek dira bilketaren xede diren hondakinak eta beren EHZ kodeak:

– 20 01 27 Substantzia arriskutsuak dauzkaten pinturak, tintak, itsasgarriak eta erretxinak.

– 20 01 28 Pinturak, tintak, itsasgarriak eta erretxinak, 20 01 27 kodean zehazten ez direnak.

– 20 01 13 Disolbatzaileak.

– 20 01 40 Metalak.

– 20 01 35* Baztertutako ekipo elektrikoak eta elektronikoak, 20 01 21 eta 20 01 23 kodeetan aipatu ez direnak eta osagai arriskutsuak dauzkatenak.

- 20 01 35*-21 CRT monitoreak eta pantailak. Etxekoak.
- 20 01 35*-22 Monitore eta pantailak, CRT eta LED motakoak kenduta. Etxekoak.
- 20 01 35*-41 Osagai arriskutsuak dituzten gailu handiak. Kanpoko dimentsioa 50 cm-tik gorakoa dutenak.
- 20 01 35*-51 Osagai arriskutsuak dituzten informatikako eta telekomunikazioetako gailu txikiak. Etxekoak.

– 20 01 36 Baztertutako ekipo elektriko eta elektronikoak, 21 01 21, 20 01 23 eta 20 01 35 kodeetan zehaztutakoak ez direnak.

– 20 01 99 Beste kategoria batean zehaztu

Dicha distribución será comunicada al adjudicatario con suficiente antelación antes del comienzo del servicio.

4.4.- Autorizaciones pertinentes.

Los licitadores deberán disponer de las correspondientes autorizaciones en vigor para la realización de los trabajos de recogida y transporte de los residuos objeto de recogida, según la Ley 7/2022 de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular.

4.5.- Residuos objeto de recogida.

Inicialmente, estos son los residuos y su código LER objeto de recogida:

- 20 01 27 Pinturas, tintas, adhesivos y resinas que contienen sustancias peligrosas.
- 20 01 28 Pinturas, tintas, adhesivos y resinas distintos de los especificados en el código 20 01 27.
- 20 01 13 Disolventes.
- 20 01 40 Metales.

-20 01 35* Equipos eléctricos y electrónicos desechados, distintos de los especificados en los códigos 20 01 21 y 20 01 23, que contienen componentes peligrosos.

- 20 01 35*-21 Monitores y pantallas CRT. Doméstico.
- 20 01 35*-22 Monitores y pantallas no CRT no LED. Doméstico.
- 20 01 35*-41 Grandes aparatos con componentes peligrosos. Con dimensión exterior superior a 50cm.
- 20 01 35*-51 Aparatos de informática y telecomunicaciones. Aparatos pequeños con componentes peligrosos. Doméstico.

- 20 01 36 Equipos eléctricos y electrónicos desechados, distintos de los especificados en los códigos 20 01 21 y 20 01 23 y 20 01 35.

- 20 01 99 Otras fracciones no

ESKU8ed070d6-f563-417c-8758-5170b1934f57

gabe dauden zatikiak (kafe kapsulak)

– 16 02 14-62 Ekipamendu baztertuak, 16 02 09tik 16 02 13ra bitarteko kodeetan zehaztutakoez bestelakoak direnak, gailu txikiak (R1201-R1301-R1302-R1400) (Tonerrak eta inprimagailuko kartutxoak).
– 20 01 21* Tutu fluoreszenteak eta merkurioa duten beste hondakin batzuk.

Zerrenda hori luzatu edo aldatu ahal izango da, kontratua indarrean dagoen bitartean, zerbitzu beharren arabera. Luzapena edo aldaketa presidentearen ebazpen bidez burutu ahal izango da.

4.6.- Biltzeko maiztasuna eta ordutegiak

Adjudikaziodunek minigarbiguneak husteko gutxieneko maiztasuna proposatuko dute hasieran, ematen dituzten edo inoiz eman dituzten antzeko zerbitzuetan lortutako ezagutzaren eta esperientziaren arabera.
Maiztasun hori desberdina izan daiteke zerbitzuaren benetako erabileraren arabera eta zerbitzu bakoitzaren errealitatera egokitu beharko da, une guztietan bermatzeko edukiontzi batek ere ez duela gainditzen bere edukiera osoaren % 75; hau da, edukieraren % 25 gutxienez utzi behar da beti, erabiltzaileek zerbitzua erabiltzen jarraitzea ahalbidetzeko.

Horiek horrela, zerbitzua hasterakoan, adjudikaziodunak, hiru hilabetetik beherako epean, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei aurkeztu beharko dizkie hondakinak biltzeko maiztasunak, egunak eta ordutegiak, minigarbigune bakoitzari dagozkionak, betetze mailen eta une hartako benetako erabileraren arabera.

Kontratuaren indarraldian zehar, adjudikaziodunak betetze mailaren jarraipen etengabea egin beharko du, minigarbiguneak husteko maiztasuna betetzeko abiaduraren arabera egokitzeko. Izan ere, behar izanez gero, maiztasun hori

especificadas en otra categoría (cápsulas de café).
- 16 02 14 – 62 Equipos desechados distintos de los especificados en los códigos 16 02 09 a 16 02 13 pequeños aparatos (R1201-R1301-R1302-R1400) (Toners y cartuchos de impresión).
- 20 01 21* Tubos fluorescentes y otros residuos que contienen mercurio.

Esta lista podrá ampliarse o modificarse a lo largo del contrato en función de las necesidades de servicio. La ampliación o modificación podrá llevarse a cabo mediante Resolución de Presidencia.

4.6.- Frecuencia y horarios de recogida.

Los adjudicatarios propondrán la frecuencia mínima inicial de vaciado en función del conocimiento y experiencia que tengan de servicios análogos que presten o hayan prestado.
Esta frecuencia podrá ser diferente en función del uso real que se haga del mismo y deberá ajustarse a la realidad de cada uno de ellos, asegurando en todo momento que ningún contenedor supere el 75 % de su capacidad total, de tal manera que siempre exista al menos un 25 % de capacidad para que los usuarios puedan seguir usándolo.

Así, comenzado el servicio, el adjudicatario en un plazo inferior a tres meses deberá presentar a los Servicios Técnicos de la Mancomunidad las frecuencias, días y horarios de recogida de cada uno de los minigarbigunes, en función de sus niveles de llenado y uso real de los mismos en ese momento.

El adjudicatario deberá realizar un seguimiento continuo del nivel de llenado a lo largo de la vigencia del contrato, al objeto de acomodar la frecuencia de vaciado a la velocidad de su llenado, aumentando si fuera preciso las

ESKU8ed070d6-f563-417c-8758-5170b1934f57

areagotu egingo du, edukiontziek gainezka egitea saihesteko eta beti hondakinak sartzeko ahalmenari eusteko, lehenago esan bezala, kontratuaren prezioan inolako igoerarik aplikatu gabe.

frecuencias para evitar situaciones de saturación y mantener permanentemente disponible la capacidad de depósito en los contenedores, tal y como se indicaba anteriormente, sin que ello suponga incremento alguno en el precio del contrato.

Adjudikaziodunak une guztietan informatu beharko ditu Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoak, maiztasunak areagotzen baditu, baita bilketan izan daitezkeen aldaketak gertatzen badira.

El adjudicatario deberá informar en todo momento a los Servicios Técnicos de la Mancomunidad de los incrementos de frecuencias, así como de las posibles variaciones que se produzcan en la recogida.

Bestalde, erregulartasuna eskatzen duen bilketa denez, lizitatzaileek esanbidez zehaztu beharko dute jaiegunetarako programatutako bilketak egiteko bidea.

Por otra parte, tratándose de una recogida en la que la regularidad es necesaria, los licitadores deberán detallar expresamente la solución prevista para las recogidas programadas en días festivos.

Adjudikaziodunak 24 orduko epea izango du beteta dauden edukiontziei buruzko abisuei erantzuteko, baita igande eta jaiegunetan ere.

El adjudicatario tendrá un plazo de 24 horas para atender avisos de contenedores llenos, incluidos domingos y festivos.

4.7.- Bilketa lanak egitea

4.7.- Ejecución de los trabajos de recogida.

Bilketa zerbitzuko lantaldeak ezarritako egutegiari jarraikiz kenduko ditu hondakinak, hustuketa egiteko unean betetze maila edozein dela ere.

El equipo de recogida procederá a la retirada de los residuos de acuerdo con el calendario de recogida establecido, con independencia del nivel de llenado que presenten en ese momento.

Adjudikaziodunak hondakin desberdinak biltzeko erabili behar diren edukiontzi, ontzi edo elementu guztiak edukiko ditu zerbitzua behar bezala emateko, "kendu-jarri" motako sistema edo adjudikaziodunak egokitzat jotzen duen beste bat erabiliz. Debekatuta dago hondakinak dauden edukiontzitik beste ontzi batera botatzeko lana bide publikoan egitea.

El adjudicatario deberá disponer de cuantos contenedores, cubas o elementos empleados para la recogida de los distintos residuos para prestar adecuadamente el servicio, en una operación de quita y pon u otro sistema que el adjudicatario estime oportuno. No se permitirán operaciones de trasvase de residuos a otro recipiente/cuba en la vía pública.

Era berean, bilketa zerbitzuko lantaldeak arrazoiren batengatik minigarbiguneen inguruan egon daitezkeen hondakin guztiak

Asimismo, el equipo de recogida retirará cualquier residuo que por el motivo que fuere se encuentre alrededor de los

ESKU8ed070d6-f563-417c-8758-5170b1934f57

jasoko ditu, bai lurrean utzitakoak, bai minigarbigunearen gainean utzitakoak. Bestelako hondakin guztiak ere bildu egingo dira, hurbilen dagoen edukiontzi egokian uzteko edo, beharrezkoa bada, garbigunera eramateko.

minigarbigunes, ya sea depositado en el suelo o encima de los mismos. Si se trata de cualquier otro residuo, será igualmente retirado y depositado en su contenedor correspondiente más próximo, o trasladado al Garbigune en caso necesario.

Hustuketa lanak egin bitartean bide publikora erori diren hondakinak berehala bilduko dituzte bilketa zerbitzuko lantaldea osatzen duten operadoreek; beste modu batera ere bildu ahal izango dira, kale garbiketaz arduratzen diren udal zerbitzuak ez inplikatzeko.

Los residuos que se viertan en la vía pública durante las operaciones de manipulación serán inmediatamente retirados por los operarios que forman el equipo de recogida, o de otra forma alternativa que no implique a los servicios municipales de limpieza viaria.

Istripuz likido edo hondar solidoren bat isurtzen bada, bilketa zerbitzuko lantaldeak berehala garbituko du eragindako gune osoa. Enpresa lizitatzaileek kasu horiei aurre egiteko jarduketa plan bat aurkeztu beharko dute beren eskaintzetan.

En el caso de producirse derrames accidentalmente de cualquier líquido o resto sólido, procederá inmediatamente a realizar una limpieza completa de la zona afectada. Las empresas licitadoras presentarán en sus ofertas un plan de actuación para solventar estos casos.

Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek minigarbiguneen inguruan hondakinak eta/edo likido isuriak daudela jakinarazten badiote, adjudikaziodunak 24 ordu izango du –abisua jasotzen duenetik zenbatzen hasita– hondakin horiek biltzeko eta/edo isuriak garbitzeko.

Cuando los Servicios Técnicos de la Mancomunidad comuniquen al adjudicatario la existencia de residuos fuera de los minigarbigunes y/o derrames de líquidos junto a los mismos, el adjudicatario tendrá un plazo de 24 horas, contadas a partir de la recepción del aviso, para su retirada y/o proceder a la limpieza.

4.8.- Hondakinen garraioa

4.8.-Transporte de los residuos.

Bildutako hondakinak Mankomunitateko garbiguneetako batean edo batzuetan utzi beharko dira. Bildu eta zuzenean entregatu ahal izango dira, edo bestela, ibilbideak eta garraioa optimizatzeko, toki batean metatu edo aldi baterako biltegiratu ondoren entregatuko dira, baldin eta adjudikaziodunak horretarako baimendutako instalazioak baditu. Nolanahi ere, aldi baterako biltegiratuz gero, helmugara (garbiguneetara) iristeko epea gehienez ere 15 egun izango da.

Los residuos recogidos deberán ser entregados en uno o varios de los garbigunes de la Mancomunidad. Estos podrán ser entregados directamente tras la realización de la recogida, o, con objeto de optimizar rutas y transporte, tras su acopio o almacenamiento transitorio siempre y cuando el adjudicatario disponga de instalaciones autorizadas para ello. En todo caso, el almacenamiento transitorio no podrá superar los 15 días hasta su destino final (los garbigunes).

Hasiera batez, hondakinak Usurbilgo

Inicialmente los residuos deberán ser

ESKU8ed070d6-f563-417c-8758-5170b1934f57

Garbigunean entregatu beharko dira.

Entregatzeko lan guztiak garbigune horren funtzionamendu-egutegian eta -ordutegian egin beharko dira.

Adjudikaziodunak une guztietan obeditu beharko die materiala uzteko entrega guneetan ezarritako arau eta baldintzei, eta horiek beteko ditu. Zerbitzuko operadoreek une guztietan kasu egingo diete gune horietako langileen jarraibideei, deskargatzeko tokiari, egin beharreko maniobrei eta eman dakizkiekeen beste agindu guztiei dagokienez, eta instalazioetan arriskua prebenitzeko arau eta jarraibideak beteko dituzte.

Lizitatzailearen erantzukizuna izango da hondakinak edukiera handiko edukiontzietan, kaioletan, ontzietan, kutxetan edo Garbigunean erabilitako beste edozein elementutan uztea.

Era berean, adjudikazioduna arduratuko da hondakin mota bat deskargatu aurretik bertan egon behar ez den materiala bereizteaz.

4.9.- Instalatutako minigarbiguneen ezaugarriak

Minigarbiguneen jabea San Marko Mankomunitatea da. Etorkizunean zerbitzua zabaltzen bada, Mankomunitatea arduratuko da erosteaz.

Hala ere, gaizki egindako prebentziozko mantentze lanaren, apurketa, kolpe edo adjudikaziodunari egotz dakiokeen beste kausa baten ondorioz beharrezkoa bada minigarbigune bat konpontzea, adjudikaziodunak ordeztearen kostua ordaindu beharko du.

Behin betiko adjudikazioa egiten ez den bitartean, minigarbiguneek ezaugarri hauek

entregados en el Garbigune de Usurbil.

Todas las operaciones de entrega se deberán realizar dentro del calendario y horario de funcionamiento del Garbigune.

El adjudicatario en todo momento tendrá que cumplir y acatar las normas y condiciones establecidas en los centros de entrega del material. Los operarios atenderán en todo momento las instrucciones del personal responsable de dichos centros, en cuanto a punto de descarga, maniobras a efectuar y cualquier otra orden que se les puedan ser dadas, así como las normas e instrucciones relativas a la prevención de riesgos en las instalaciones.

Será responsabilidad del licitador depositar los residuos en los contenedores de gran capacidad, jaulas, cubos, cajas o cualquier otro elemento empleado en el Garbigune.

Del mismo modo será responsabilidad del adjudicatario separar aquel material incorrectamente depositado en alguna fracción antes de su descarga.

4.9.- Características de los minigarbigunes instalados.

Los minigarbigunes son propiedad de la Mancomunidad de San Marcos. En caso de futuras ampliaciones, la Mancomunidad se hará cargo de su adquisición.

No obstante, en caso de que sea necesario una reparación de un minigarbigune por el mantenimiento preventivo mal ejecutado, rotura, golpe o causa imputable al adjudicatario, el adjudicatario estará obligado a asumir el coste de reposición.

A falta de su adjudicación definitiva, los minigarbigunes tendrán las siguientes

ESKU8ed070d6-f563-417c-8758-5170b1934f57

izango dituzte:

– Metalez egindako armairua, altzairu galvanizatuzko txaparekin fabrikatua, gutxieneko kalitatea JR 235 DX51, 1,5 mm eta 3 mm bitartekoa, armairua osatzen duten guneen eta elementuen arabera. Tapak edo estalkiak, baita gainerako elementuak ere (ardatzak, torlojuak, etab.) material berekoak izango dira.

– Ekipamendua guztiz hermetikoa izango da. Likidoak eta lixibiatuak hartzeko erretiluak izango ditu, eta horiek tope edo gidarietan muntatuko dira, behar bezala kokatzeko.

– Goiko aldean altxatzeko 2-4 uztai izango ditu, minigarbigune osoa segurtasun berme guztiekin igotzea eta maneiatzea ahalbidetzeko.

– Erosotasunez erabiltzeko eta irisgarria izateko diseinua. Hondakinak botatzeko ahoak ekipamenduaren aurrealdean (aurrealdeetan) eta albokoan (albokoetan) jarri ahal izango dira.

– Ekipamenduaren barrualdean gutxienez 4 edukiontzi sartzeko lekua egongo da; horietako 2 edukiontzi 360 litrokoak izango dira, eta gainerakoak, 240 litrokoak.

– Edukiontzien euskarri moduan, minigarbiguneak likidoak hartzeko erretiluak izango ditu, tope erregulagarriekin, edukiontziak egonkor eta karga-ahoekiko zentratuta mantentzeko.

– Gainerako poltsak, kaxoiak, etab. ekipamenduaren egiturari lotuta egongo dira, deskargatzeko arazoak saihesteko moduan.

– Ahoetako tapa edo estalkiek lapurreten aurkako sistema izango dute.

características:

- Armario de construcción metálica, fabricado en chapa de acero galvanizado, calidad mínima JR 235 DX51 mínimo de entre 1,5 mm y 3 mm según zonas y elementos que lo componen. Las tapas o tapetas así como el resto de elementos (ejes, tornillos, etc.) deberán ser también de este material.

- Equipo totalmente estanco. Contará con bandejas retenedoras de líquidos y lixiviados, montadas sobre topes o guías para su correcta colocación.

- En la parte superior dispondrá entre 2 y 4 anillas de elevación que permitirán el izado y manipulación del conjunto con plenas garantías de seguridad.

- Diseño configurado para su uso cómodo y accesible. El equipo podrá contar con bocas de admisión de residuos en la parte frontal/es y lateral/es del equipo.

- El equipo deberá tener capacidad en su interior para albergar al menos 4 contenedores, de ellos, 2 contenedores de 360 litros de capacidad y el resto de 240 litros.

- Como soporte a los contenedores, el minigarbigune contará con bandejas de retención de líquidos, dotados de topes regulables para mantener los mismos estables y centrados respecto a las bocas de carga.

- El resto de bolsas, cajones, etc. estarán sujetas al cuerpo del equipo, a la vez que su descarga no presente dificultad.

- Las tapas o tapetas de las bocas contarán con sistema antihurto.

ESKU8ed070d6-f563-417c-8758-5170b1934f57

– Minigarbigunea hustu nahi izanez gero, aurrealdetik, atzealdetik eta/edo albotik irekiko da. Ateek elementu lagungarriak izango dituzte, operadoreei maneiatzea errazteko.

– Kalitate handiko altzairu herdoilgaitzez egindako segurtasun sarrailak zerbitzu ateetan.

Kontratistak kontserbazio egoera onean eta garbi mantendu behar ditu ekipamenduak.

Kontratua bukatu ondoren, kontratistak laga zitzaizkion minigarbiguneak San Marko Mankomunitateari itzuli beharko dizkio kontratuaren hasieran zeuden bezalako egoeran, ohiko erabilerak eta igarotako denborak eragin dezakeen narriadura kontuan hartuta.

Kontratistak minigarbiguneak behar bezala mantendu eta kontserbatzeko betebeharra betetzen duela bermatzeko, kontratua edo bere luzapenak bukatu baino hiru hilabete lehenago, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek minigarbiguneen ikuskapen teknikoa egingo dute, eta ikusitako kalte guztiak zuzentzeko konponketa eta ordezkatzeak kontratistaren kontura izango dira, kalte horiek gainditzen badute erabiltzearen eta ondo zaintzearen ondorioz sortu ohi den narriadura.

4.10.- Edukiontziak jartzea, lekuz aldatzea eta antzeko beste lan batzuk.

Halaber, kontratistaren betebeharra izango da lan hauek egitea:

a) Minigarbiguneak lehen aldiz kokatzea, zerbitzua ematen hasteko.

b) Jarritako minigarbiguneak lekuz

- La apertura del minigarbigune para su vaciado se realizará desde la parte frontal, trasera y/o lateral. Las puertas contarán con asistencia que ayude a los operarios a su fácil manejo.

- Cerraduras de seguridad, fabricadas en acero inoxidable de alta calidad en las puertas de servicio.

El contratista queda obligado a mantener los equipos en buen estado de limpieza y conservación.

Al término del contrato, el contratista deberá devolver a la Mancomunidad de San Marcos los minigarbigunes en el mismo estado en que las hubiera recibido al comienzo de aquella, teniendo en cuenta el deterioro que un uso normal de los mismos y el transcurso del tiempo hubieran podido producir.

En garantía del cumplimiento por parte del contratista de la obligación de mantener y conservar adecuadamente los mismos, tres meses antes de la finalización del contrato o de sus prórrogas, se someterán las mismas a la inspección técnica de los Servicios Técnicos de la Mancomunidad, realizando a costa del adjudicatario las reparaciones y reposiciones de cuantos desperfectos se observen y excedan del normal deterioro derivado de su uso y correcto mantenimiento.

4.10.- Colocación y reubicación de contenedores y otros trabajos afines.

Será obligación del contratista la realización de los siguientes trabajos:

a) La colocación inicial de los minigarbigunes al comienzo del servicio.
b) La reubicación, retirada, custodia y

ESKU8ed070d6-f563-417c-8758-5170b1934f57

aldatzea, kentzea, gordetzea eta berriz kokatzea, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek behar besteko aurrerapenaz jakinarazi eta justifikatzen duten edozein kausa dela medio.

posterior recolocación de los minigrabigunes instalados, por cualquier causa justificada y comunicada con suficiente antelación por los Servicios Técnicos de la Mancomunidad.

c) Mankomunitateak kontratua edo luzapenak indarrean dauden bitartean eska ditzakeen minigarbigune gehigarri guztiak instalatzea.

c) La instalación de cuantos minigarbigunes adicionales sean solicitados por la Mancomunidad a lo largo del contrato, prórrogas incluidas.

d) Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek agindutako antzeko lanak.

d) Otros trabajos similares ordenados por los Servicios Técnicos de la Mancomunidad.

Lanak egiteko epea, gehienez ere, hiru egun izango da, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek epe labur bat ezartzeko aukera galarazi gabe, behar bezala justifikatutako premiazko arrazoiak direla medio.

El plazo para la ejecución de los trabajos será, como máximo, de tres días, sin perjuicio de que los servicios técnicos de la Mancomunidad estimen un plazo inferior, por cuestiones de urgencia, debidamente justificadas.

4.11.- Minigarbiguneen garbiketa eta mantentze-lanak

4.11.- Limpieza y mantenimiento de los minigarbigunes.

